

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### **Salburuko 15. sektoreko 3. enklabearen xedapen-azterketa**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 2an egindako bilkuran, Salburuko 15. sektoreko 3. enklabearen xedapen-azterketarekin lotuta:

1. Indarrean dagoen hiri antolamenduko plan orokorraren Salburuko 15. sektoreko 3. enklabearen xedapen-azterketaren proiektua onestea, zeina J. A. N. arkitektoak idatzi baitu.

2. Hasierako onespina ematea indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Salburuko 15. sektoreko 3. enklabearen xedapen-azterketari, zeina Ebrogan Uno 2005 S. L. U. enpresak aurkeztu baitu.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hoguei egunez, Gasteizko Udal Hirigintza Elkarteak, 21 Zabal-gunea SAren egoitzan —Gure Txokoa eraikina, Frai Francisco Vitoria ibilbidea, 21 C—, horrek eragiten diela uste dutenek aztertzerik izan dezaten, baita egokitze jotzen dituzten ohar eta alegazioak aurkezterik ere.

4. Ebazpenak eragiten dien jabeen nahiz eragindako konpentsazio batzarrei horren berri ematea, eta orobat argitara ematea ALHAOn eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz.

Hala ematen da jakitera, interesdunak jakinaren gainean egon daitezten. Halaber jakinarazten da ebazpen horren kontra ez dagoela errekurtsorik aurkezterik, izapide-egintza izaki, eta alegazioak eta oharak aurkezteko epea iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko dela.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 5an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**